

Ramiro Gonzalez: “Nahi gabeko bakardadea prebenitzeko eskolak sortuko ditugu, lurralde eta genero ikuspegiarekin eta gizarte eragileen inplikazioarekin”

Arabako ahaldun nagusiak Laudion aurkeztu du Bakardadeak, lurraldeko lehen bakardade eskola, eta hilaren erdialdean abiatuko du bere jarduera: ikastaroak, lantegiak, laborategiak eta topagunea

65 urtetik gorako 16.000 pertsona inguru bakarrik bizi dira Araban, eta horietatik % 70 emakumeak dira

Gasteiz, 2021eko urriaren 1a. Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusiak Bakardadeak izeneko Arabako lehen bakardade eskola aurkeztu du gaur goizean. Foru Aldundiak Laudioko Udalarekin lankidetzan sustatu du, eta Arabako gainerako udalerrietara zabaltzeko asmoa du. Ekimen hori beste aurrerapauso bat da nahi gabeko bakardadearen aurkako Arabako Araba a Punto Estrategian. *“Bakardadeak apustu serioa da: eskolak sortuko ditugu bakardadea prebenitzeko, genero eta lurralde ikuspegiarekin, landa eremua kontuan hartuta, eta gizarte inplikazioarekin, gizarte eragileekin sareak osatuz”*.

Hala ziurtatu du diputatu nagusiak Laudioko kasinoaren eraikin enblematikoan egindako aurkezpenean, proiektuaren proiektu eragilean parte hartu duten erakundeen eta tokiko elkarten ordezkarien aurrean. Harekin batera, Emilio Sola Gizarte politiketako foru diputatuak, Ander Añibarro Laudioko alkateak eta Beatriz Gazquez Araba a Punto estrategiaren koordinatzaile teknikoak parte hartu dute ekitaldian.

Horrekin batera, Bakardadeak-en programatutako topaketen, ikastaroen eta lantegien dinamizatzaileetako batzuek ere parte hartu dute, hala nola Cristina Merino Familia Bitartekaritzako Euskal Zerbitzuko arduradunak, Marian Urrechu Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sareko arduradunak eta Naomi Hasson Doble Sonrisa Fundazioko arduradunak.

"Asmo handiko proiektu baten aurrean gaude, eta Arabako Foru Aldundiaren eta, zehazki, bere Gizarte Politiken Sailaren nahia da datozen urteetan garatzea eta handiago egitea", adierazi du Ramiro Gonzálezek.

“Nahiz eta adinekoen bakardadea dagoeneko handituz doan arazoa eta aspalditik antzemana dugun, COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako egoerak agerian utzi du gai horri lehentasunez eta erabakitazunez heldu behar diogula”. Ildo horretatik, Arabako agintari gorenak zifra "adierazgarri" bat ezagutarazi du: 65 urtetik gorako 16.000 pertsona inguru bakarrik bizi dira Araban, eta horien % 70 emakumeak dira.

Horregatik jarri da martxan, besteak beste, Araba a Punto estrategia, eta, zehazki, Bakardadeak eskola, Arabako Foru Aldundiak legealdi honetan "bultzada handia" eman dien zaintza politiken barruan "integratuta", bai eta Gizarea eta Etxean Bai ereduak ere. *“Ekintza horiek indartu nahi ditugu, gizarte gisa gehien behar ditugunean; izan ere, pertsoneri bakardadeari aurre egiten laguntzea eta horretarako tresnak ematea haiek zaintzea ere bada”*.

Era berean, gogorarazi du "gizarte berrikuntzako" proiektu hori Arabako gainerako udalerrietara zabaltzeko asmoa dagoela, eta, horregatik, lurraldeko udalen laguntza eskatu du Bakardadeen Eskolaren eredia zabaltzeko.

Bakardadeak eskolak jarduera programa trinko eta askotarikoa aurkezten du: Agora bat, pertsonen arteko topaketa eta konexioa errazten duena eta lankidetzeta eta zaintza sareak sustatzen dituena; tailer eta ikastaroak, komunikazio trebetasunak, adimen emozionala eta egokitzeko gaitasuna ikastera bideratuak; eta herritarren ekimenak sortzeko laborategi bat.

Eskolak San Roketzar erretiratuen elkartean du kokaleku fisikoa, eta Laudioko Udalaren laguntza izan du horretarako, jarduerak egiteko lekua utzi baitu.

Izena urriaren 10etik aurrera eman ahal izango da www.arabaapunto.eus webgunearen bidez (programazioa kontsultatu daiteke bertan) edo telefonoz 681019848 zenbakira deituz, 10:00etatik 13:00etara. Jardueren egutegia urriaren 18an hasiko da.